



XXXI. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA

XXXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Mikel Arregi Aranburu, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna (kargu bera izan zuen artean, ekainaren 15era arte alegia, Ainara Rodríguez Zalakain izan zen mahaiburua).
- Mahaikideak: Jose Inazio Basterretxea, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Maite Goñi, Elixabete Larrinaga, Ion Muñoa eta Jon Sarasua.
- Idazkaria: Patxi Baztarrika (Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria).

Epaimahaia ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

AZKEN ERABAKIA

Aurtengoarekin hogeita hamaika urte bete ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Euskal kazetaritzaren sari aitzindari eta dekanoa den honek, urteen gurpilean berrikuntza eta kalitatea bihurtu ditu bere jardunaren irizpide nagusi. Ez alferrik irakur daiteke hasiera beretik sariaren arau-oinarrietan ondorengo: “Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua. (...) Euskarazko kazetaritzaren eta komunikazioaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburua”. Lau haizeetara aldarrikatutako gogo eta helburu hori sariaren beraren baitan ere aplikatzen ahalegindu dira antolatzaileak eta, horregatik-edo, aurtengo deialdian izan da berrikuntzarik, sariaren beraren eta euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren mesedetan.

Bi sariak osatzen dute XXXI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: “kazetaritza saria” eta “komunikazio saria”. Lehen, *kazetaritza saria*, lehendik datorrena da, baina birdefinitu egin da oraingoan. Bestea, *komunikazio saria*, berria da, aurtengoa du lehen aldia. Berriemaitzarekin zuzen-zuzenean lotutako saria da “kazetaritza saria”, zeinak informazio edo iritzi emate edo interpretazio generoetako edukiak baititu aztergai, betiere kalitate, berrikuntza eta eredugarritasunaren ikuspegitik. “Komunikazio sariak” jomugan dituenak, berriz, honakoak dira: euskarazko komunikazioa molde eta formatu berritueta egokitu eta euskarazko komunikazioaren mesedetan haien aukeraz baliatzeko urrats berritzailea direnak edo izan litezkeenak. Formatu berri, digital, ikus-entzunezko, sare sozial, web-sail eta komunikazio-kanpainetara luzatu du begirada sari berri honek.

Bi sariak, *kazetaritza saria* zein *komunikazio saria*, ezaugarri ezberdinak badituzte ere, maila berekoak dira. Halaber, *Ohorezko aipamena* egiteko aukerari eutsi zaio edizio honetako arau-oinarrietan ere.

Bada beste berrikuntza bat ere. Aurten lehen aldiz finalistak izendatu ahal izan ditu epaimahaia, gehienez zortzi, eta halaxe egin du: launa finalista izendatu ditu sari bakoitzerako. Ondorengo hauek izan dira finalistak:

Kazetaritza sariko finalistak:

- * Jon Artano Izetaren 2019. urteko kronika eta elkarrizketak Ameriketatik EITBn
- * “Iraultza txikien lekukoak” atala Elhuyar aldizkarian, Ana Galarraga Aiestaranen eskutik
- * “Zozoen elean” elkarrizketa sorta Berrian, Miel Anjel Elustondoren eskutik
- * Kanaldudeko “Hurbiletik” saioko 2019ko uda arteko atalak



Komunikazio sariko finalistak:

- * 2019ko Korrikaren komunikazio kanpaina
- * Ttap aldizkari digitalak 2019. urtean sendotze bidean emandako pausoak
- * “Egunean behin” jokoak, CodeSyntaxen eskutik
- * “Barruan gaude” podcasta, Oier Aranzabalek Zuzeun argitaratzen duena

Finalista bakoitzaren merezimendu gisa epaimahaiak azpimarratu dituenak, *Azken erabaki* honen eranskin gisa jasota geratu dira.

Ohorezko aipamena

Orain arteko edizioetan bezala, aurtengoan ere, arau-oinarrietako bigarrenean ageri denez, “Epaimahaiak bere esku izango du euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen *Ohorezko aipamena* egiteko aukera”. Epaimahaiak, gehiengoz, aukera honetaz baliatzea erabaki du, eta *Ohorezko aipamena* egitea **Iñaki Elorza “Txapas”**i ondorengo arrazoiongatik:

“Iñaki Elorzaren ibilbide jarraitu bezain oparoa aitortu nahi du epaimahaiak. Irrati-esatari aparta, etorri handikoa, euskara bizi-bizikoa eta gaia testuinguruan kokatzen iaioa dela erakutsi du Iñaki Elorzak. Zuzentasuna, naturaltasuna, umorea... informazioa eta iritziak aberasteko hainbat narrazio-tresnaren jabea da nabarmen. Kirol-erretransmisioetan jokoaren deskripzioa maisuki egiteko abileziaz jantzia. Narrazioaren indarra eta memoriaren isla, horra kazetari honen balioak. Kalitatezko berriemaitzarekin zuzenean lotutako jarduna da berak urtez urte egin duena, kirol erretransmisioetan ez ezik bestelako ospakizunetan ere, esate baterako, Sanferminetako kontakizunetan. Zuzenean landutako kazetaritzan lanak egin ditu eta, aldi berean, entzuleen parte hartzeari leihoak parez pare zabalik burutuak. Lan eredugarria, datu-bilketa eta lanketa jasoa, informazio-iturri ugariren erabilera, sakontasuna, protagonistengandik hurbila, eta interes publiko argia... begien bistakoak dira Iñaki Elorzaren kazetaritza ibilbide luzean”.

2019ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute, beraz, 2019ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. Jada aipatutako zortzi finalistean artean, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:

Kazetaritza saria 2019:

Sariduna: **Kanaldudeko “Hurbiletik” saioko 2019ko uda arteko atalak**

Epaimahaiaren arrazoiak: “Baxenafarroako mendialdeko bailara bateko bizi-taupadatik jaiota, dinamismo handiko Internet bidezko telebista da egun Kanaldude telebista, Euskal Herriko errealitate askoren irudi-unibertsoa hamaika bazterretara zabaltzen duena. Eskualde horretako berpizte ekonomikoarekin eta kulturalarekin ere konprometitutako hedabidea da Kanaldude. Telebista-atariaren saio interesgarri eta kalitatezko batzuen artean, “Hurbiletik” programak taupada horietara hurbiltzen gaitu bereziki, aldi bakoitzean molde batez egindako erreportajeen bidez, aldi berean tokikoa eta naziokoa den emaitza lortuz. 2019ko uda arteko ataletan bada hainbat erreportaje eredugarri, egunerokotasun handia duten gaien buruzkoak horietako batzuk. Bat edo beste aipatu beharrean, *Hurbiletik* saioko 2019ko uda arteko atal guztiak nabarmentzea hobetsi du epaimahaiak”.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.



Komunikazio saria 2019:

Sariduna: ***Ttap aldizkari digitalak 2019. urtean sendotze bidean emandako pausoak***

Epaimahaiaren arrazoiak: “Rikardo Arregi sariaren XXXI. edizioaren oinarrietan honela dago jasota komunikazio sariaren atalean: *“euskarazko komunikazioa molde eta formatu berritueta egokitu eta euskarazko komunikazioaren mesedetan haien aukeraz baliatzeko urrats berritzailea direnek edo izan litezkeenek”*. Ttap aldizkariari beren-beregi egokitutako hitzak direla esan daiteke. Bera dugu Euskal Herriko euskarazko zein erdarazko lehen aldizkari digital multimedia, aztergai askotarikoak biltzen dituen. Formatu multimedia eta digitalera egokitzeko bidean (eskuko telefonoa, APP), euskarazko kazetaritza esparru eta aukera berriak irekitzen dizkion proiektua da, elkarlanari ere zukua ateratzen diona, eta aro digitaleko esparru ugari uztartzen ditu: sare sozialak, blog formatua, ikus-entzunezkoak, webguneetara loturak, gif-ak, ilustrazioak, infografiak. Proiektu anbiziadun honek, 2018ko probaketen ondoren, 2019an eman ditu sendotzeko pauso erabakigarriak (besteak beste, edizio berriak, argitalpen bereziak, maiztasuna iraunkortzea...), eta sendotze hori da epaimahaiak azpimarratzen duena”.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Azkenik, esker ona azaldu nahi die epaimahaiak aurtengo RAKSera proposamenak bidali dituzten kazetari, komunikatzaile eta herritarrei. Esker ona proposamenak bidaltzeagatik. Asko izan dira, dozenaka asko, epaimahaiak aztergai izan dituenak: genero eta euskarri ezberdinetakoak, erreportaje bakanak zein sortak, lan solteak nahiz askotariko biltegi eta sekzioak, egile bakarrenak zein taldean egindakoak... Bihoakie, beraz, epaimahaiaren esker ona denei, eta baita ere beren lanaren balioaren aitormena, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren munduan ugariak baitira kalitate, bikaintasun, berrikuntza eta eredugarritasun irizpideak betetzen dituzten lanak.

Gehiengoz onarturiko Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hemeretzi urriaren hogeita zortzian.

Mikel Arregi
Mahaiburua

Mahaikideak:

Jose Inazio Basterretxea

Itxaro Borda

Aingeru Epaltza

Maite Goñi

Elixabete Larrinaga

Ion Muñoa

Jon Sarasua

Patxi Baztarrika
Idazkaria